

IKEBI programa

Ermuko etxebizitza programa: ikasleak eta elkarbizitzarako balioak sendotzea

SARRERA

Herritarrek etxebizitza eskuratzea erronka bihurtu da administrazio publiko guztientzat, herritarren beharrei erantzuteko konpromisoa baitute.¹

Testuinguru horretan, Ermuko Udala tresna aktiboa da etxebizitza babestuen sustapen-politikak garatzeko, etxebizitza behar duten pertsonen baldintza duinetan, ahal dela alokairuan etxebizitza bat eskura dezaten; etxebizitza erosoan parke publikoa, handitu eta berritua, efizientzia eta iraunkortasun irizpideekin eraikitako etxebizitza berriekin eta pertsona guztientzako etxebizitza irisgarriak, alokairuko etxebizitza babestuak, hiriko auzo eta barruti guztietan eraikitzen direnak.

Ermuko Udalaren etxebizitza babestuak merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako dira, beren egoera sozial edo ekonomikoagatik, eta kolektibo horren barruan, Ermuko Udalak arreta berezia egiten die lehen etxebizitzaren bila dabiltzan gazteei. Kontuan izan behar da, talde horren barruan unibertsitateko ikasleek etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasun orokorrez aparte beste batzuei ere aurre egin behar dietela, eskasia eta prekariedade ekonomikoari aldi baterakotasuna eta prezio baxuan ostatu hartzeko beharra gehitzen zaielako, gainera beren baliabideetara egokituta eta denbora baterako, beren prestakuntza baldintza onenetan amaitu ahal izateko.

Ilido horretatik, **Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU)** Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak eta UPV/EHUK, oro har, bere oinarrizko helburuen artean ditu ikasleek erantzukizun komunitario eta elkartasun sozialeko unibertsitate-funtzioan ikastea/irakastea, eta ikasleen bizitzarako baldintza material duinenak lortzea.

HELBURUAK

IKEBI programa Ermuko Udalaren eta EHUren arteko lankidetzaren esperientzia bat da, unibertsitateko ikasleek etxebizitza babestua eskuratzeko baldintza materialak sortzeko, eta horrek, aldi berean, komunitate eta auzoei ekarpena egiteko, San Lorentzoko Bizikidetzaren Planeko bezala, adibidez.

Programaren helburu nagusiak honako hauek dira: biztanleria egoiliarren integrazioa eta kohesio sozial handiagoa lortzea, etxebizitzan eta espazio komunean mantetze- eta elkarbizitza-kultura sustatzea eta egoiliarren egitura sozioekonomikoa definitzea, beste helburu batzuen artean.

Programa xede hauen bidez zehazten da:

- I. EHUko ikasleei aukera ematea ikasturtean zehar beste ikasle batzuekin partekatutako udal-etxebizitza batean ekonomikoa den ostaturantz hartzeko.
- II. Kultura zibikoa sustatzea, unibertsitateko ikasleak auzo-bizitzan integratuz eta parte hartuz, herritar-elkarbizitzaren balio eta ohitura normalizatuak, sozial eta ekoinerdiak, partekatuz.
- III. San Lorentzo auzoa biziberritzen laguntzea, auzo horretako Bizikidetzaren Plana aberastuz.
- IV. Esku-hartze eta normalizazio soziokomunitarioan eta herritarren parte-hartzean esperientzia profesional praktikoa eskuratzeko, berronertze komunitarioko udal-estrategiekin lankidetzan.
- V. Etorkizunera begira, Ermuko Udalaren eta EHUren arteko lankidetzaren aukera berriak aztertzea.

PROGRAMA

- Graduon edo graduondoko ikastaroetako EHUko ikasleak (masterra edo doktoretza).
- EHUko graduon edo graduondoko beste ikasle batzuekin partekatutako alokairuko etxebizitza bat bilatzen ari badira eta
- Proiektuaren xede den auzoan proiektu komunitarioetan eta kolektibo kalteberri laguntzeko prest badaude

Egoitza-plaza ekonomiko bat eskuratu nahi duten programa honetako parte-hartzaile guztientzat oinarrizko baldintza da esku-hartze soziokomunitarioko udal-planekin (batez ere auzoko gizarte-sarea dinamizatzea bideratuak), lankidetzan aritzeko konpromiso irmoa hartzea.

IKEBI programa: Ermuko etxebizitza programa: ikasleak eta elkarbizitzarako balioak sendotzea helburu duen IKEBI PROGRAMAKo lankidetzak amaitzean, partaidetza-ziurtagiri bat emango zaie ikasleei baldin eta, EHU eta Ermuko Udalaren arteko Jarraipen Batzordearen arabera, finkatutako helburuak behar bezala bete badituzte.

ESKU-HARTZE EREMUAK

Ermuan San Lorentzo auzoa aukeratu dute IKEBI programa garatzeko. Industrializazio-urteetan hainbeste etxebizitza eraiki zen denbora laburrean beste autonomia erkidego batzuetatik zetorren immigrazio-olatuak hartzeko, non 16 aldiz biderkatu zen biztanleria garai hartan.

Bestalde, Ermua eta bere ingurua aitzindaria izan da 60ko hamarkadan iristen hasi ziren marokoar jatorriko pertsonak hartzen, gaur egun hirugarren belaunaldira iritsiz. Hala, auzoaren ezaugarri nagusia udalerriko kultura-aniztasun esanguratsua da. Auzoaren funtsezko kokaguneetako bat San Lorenzo Hezkuntza Zentroa da; izan ere, auzoaren orografiatik (trenbidea hertz batean duela) auzoko plaza moduan erabiltzen da, eta auzoko bizilagunek bertan egiten dituzte beren arteko topaketarik esanguratsuenak. Ikastetxeak, auzoaren isla den aldetik, kultura-aniztasun handia du, eta erronkak planteatzen ditu bizikidetzarako, bai ikastetxean bertan, bai auzoan. Errealitate hori are larriagoa da 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko Zabortegean gertatutako hondamendi naturalaren ondorioz, ikastetxearen alboko hegalean baitago, ikastetxetik 500 metro baino gutxiagora.

2019az geroztik Ermuko Udalak hainbat estrategia zabaldu ditu ikastetxean kulturarteko bizikidetzak sustatzeko, eta, gaur egun, auzo-estrategia bat diseinatzen ari da San Lorentzo auzoa bere onera ekartzeko eta auzoari esanahi berria emateko, horretarako San Lorentzo Eskolan esku-hartuz.

Ermuko Udalak ikasleentzat prestatu duen programa berri honen bidez, asmoa da aipaturiko ekintza eta aukera horiek osatzen eta indartzen jarraitzea, San Lorentzo auzoa hobetzeko. Zehazki, programan parte hartzen duten pertsonentzat proposatutako gizarte-lana astean 4 ordukoa izango da, eskola-ordutegitik kanpo, honako hauetan parte hartzeko:

- San Lorentzoko ikastetxean elkarbizitza eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzearekin lotutako jarduerak antolatzea eta dinamizatzea.



- San Lorenzo ikastetxeko ikasleei gaitasun akademikoak eta gizarte-trebetasunak garatzen laguntzea.
- 2030erako GJHak lortzen lagunduko duten espazioak eta proiektuak sustatzea.

HAUTATUTAKO ETXEBIZITZAK

Programan 2 plaza eskaintzen dira. Programa honetan sartzen diren etxebizitzek ezaugarri hauek dituzte:

- Partekatuak, banakako logelekin.
- Sukaldearekin eta oinarrizko altzariekin egokituak.
- Hilean 55 €-ko errentamendu-prezioarekin (argiaren eta uraren gastuak aparte)
- San Lorentzo auzoko Gipuzkoa Etorbidean kokatua.

Programaren iraupena eta errentamendu-baldintzak

Programak ikasturte baten iraupena izango du, eta 2024ko uztailaren 15a baino lehen amaitu beharko da.

HAUTAPEN PROZESUA

izangaiek bete beharreko baldintzak edo betekizunak:

- Eskabidea EHUko graduako edo gradu-ondoko (master edo doktoregoko) ikastaro batean matrikulatuta edo aurrez izena emanda dagoen edonork egin dezake
- Graduako ikasleen kasuan, 60 kreditu gaindituta izatea.
- Kontratua sinatzen den unean EHU 2023/24 ikasturterako matrikulatuta egotea.
- 35 urte baino gutxiago edukitzea.

Baloratu egingo da:

- Interes pertsonala eta prestasuna
- Familiaren eta norberaren egoera ekonomikoa
- GKE, elkarte eta antzekoetan borondatezko edo ordaindutako lanean izandako esperientzia.
- Egiten ari den graduondokoak eskatzen diren zeregin soziokomunitarioetarako egokitzapenari eman diezaiokkeen profil erantsia.

Eskabideak aurkezteko lekua:

Programan parte hartzeko eskabideak, ahal dela, modu telematikoan aurkeztuko dira, Bizkaiko Campusaren webgunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/campusaren-deialdiak>) dagoen eskabidearen bidez.

Halaber, salbuespen gisa, eskabideak paperezko euskarrian aurkeztu ahal izango dira, honako erregistro hauetako batean:

- Errektoretzaren eraikina. Sarriena auzoa z.g. 48940 Leioa
- Larrako Etxea Informazio eta Erregistro Bulegoa, Lehendakari Agirre 83 (Sarriko), 48015 Bilbao

Eskabidea posta-bulegoetan aurkezten duten interesdunek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritako moduan egin beharko dute.

Eskabidea aurkezteko epea:

Eskabideak 2023ko ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean aurkeztu ahal izango dira. Hautatutako behin-behineko ebazpena uztaileko azken astean argitaratuko da, eta emandako plazak behin betikoak izango dira kontratua sinatzen den unean,

graduoko ikasleen kasuan irailaren hasieran, eta graduondoko ikasleen kasuan hilabete horren amaieran, nahiz eta lehenago ere formalizatu ahal izango diren. Gogoratu garrantzitsua dela kontratua sinatzen den egunerako matrikula formalizatuta izatea.

Aplikazioa abenduaren 15era arte egongo da zabalik, eta plazarik hutsik geratzen bada eta horiek uztailaren 15a baino lehen entregatutako eskabideekin betetzen ez badira, data horren ondoren entregatutako eskabideak erabiliko dira plazak betetzeko.

Hautaketa eta Jarraipen Batzordea

Programan parte hartuko duten pertsonen hautaketa EHUko eta Ermuko Udaleko batzorde misto batek egingo du. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

2 EHUren 2 ordezkariak
Ermuko Udalaren 2 ordezkariak

Era berean, batzorde horren zereginak izango dira parte-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak, programan ezarritakoak, betetzen direla bermatzea eta, hala badagokio, UPV/EHUri eta Ermuko Udalari programa garatzeko baliagarritzat jotzen dituzten aldaketak proposatzea.

Programaren Hautaketa eta Jarraipen Batzordeak elkarrizketa pertsonalizatua egin ahal izango du, nahitaezkoa izango dena.

* Eskabideak paperezko euskarrian eginez gero, honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea sinatuta (inprimaki hau <https://www.ehu.eus/es/web/bizkaia/campusaren-deialdiak> helbidetik jaitsi daiteke).
- NAN edo pasaporteak.
- Curriculumak.
- Erroldatze-ziurtagiria.
- Galdetegia (galdetegia hau <https://www.ehu.eus/es/web/bizkaia/campusaren-deialdiak> helbidetik jaitsi daiteke).
- Diru-sarrerak (ondokoetatik bat):
 - Azken urteko errenta-aitorpenaren (PFEZ) fotokopia.
 - Nomina bidezko diru-sarreraren fotokopia.
 - Ogasunaren ziurtagiri negatiboa.
 - Aurrekoetako baten frogagiririk ez balego, diru-sarreraren zinpeko aitortpena.

- Bekarik jaso ezkerro, emakidaren eta zenbatekoaren fotokopia.
- Baldin badago, ardura duen gurasoaren errenta aitortpenaren (PFEZ) fotokopia.
- Parte hartzen duen gradu edo graduondokoaren programazioa.